



BATXILERGOA 1

OHARRA: *Erlajioko* ikaslerik ez badago, ez da beharrezkoa izango *Komunitateari Zuzendutako Proiektua* egitea. Ikastetxearen erabakia da ordu hori 2 edo 3 orduko hautazkoari esleitzea, ondorioz 3 ordukoa izango litzateke.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA I

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Europar batasunak DIGGCOMP markoaren bidez ezartzen dituen gaitasun digitalak lantzen dira ikasgai honetan. Helburua, ikasleak komunikazioan, informazioaren bilaketan, segurtasun informatikoan, programazioan eta arazoak konpontzeko IKTen erabileran trebatzea da. Astean 4 ordu emango da. Ikasgaia erabat praktikoa izango da.

Eduki esanguratsuenak

- Ordenagailua aztertzen: Ordenagailuaren funtzionamendua ondo ulertzeko, ordenagailu baten osagai guztiak aztertuko dira zerotik hasita informatika gela bat muntatu arte. Hardwarea, softwarea eta segurtasunari garrantzi berezia eskainiz.
- Web-orriak: Ikasleen interesetik abiatuta web-gune osatu bat diseinatuko da. (Google site, html, css,...)
- Tresna digitalak: Aurkezpen metodo aurreratuak landuko dituzte komunikazioan hobetzeko helburuarekin. Horretarako gustuko gai baten inguruko aurkezpen bat landu eta aurkeztu beharko dute.
- Programazioa: Goi mailako programazioarekin aurreneko harremana modu erraz eta praktiko batez egingo da, python programazio-lengoaia erabiliz.



ANATOMIA APLIKATUA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Jakintzagai honetan giza gorputzaren antolamendua eta funtzionamendua modu praktikoan ikasten dira; horretarako irakasleak eta ikasleak egindako aurkezpena, bideoak, laborategiko praktikak,... erabiliko dira.

Eduki esanguratsuenak

- Emakumeen zein gizonen aparatu eta organoen oinarrizko anatomia.
- Aparatu eta organo guztien funtzionamendua.
- Organismoan eragina duten kanpoko eta barneko faktoreak.

Laburbilduz, eskeleto eta muskulatura, odola, digestioa, arnasketa, nerbioak, hormonak, ugalketa, etab. aztertu egingo dira



EKONOMIA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Gizarte bakoitza bere kideen ongizate materiala lortzen saiatzen da, zenbait prozesuren bidez, eta horixe da jakintzagai honen ikasketa-funtsa.

Gizartearen helburu handien artean, hauek daude: baliabide ekonomikoak guztiz eta efizientziaz erabiltzea; gutxieneko bizitza-maila duin bat lortzea; errentaren banaketa; laneko ohiko baldintza atseginak lortzea; bizitzeko ingurune osasuntsua lortzea. Gizakiak historian izan duen bilakaeran, horiek guztiak izan dira lortu nahi izan dituen helburu garrantzitsuak.

Eduki esanguratsuenak

- Jarduera ekonomikoa eta sistema ekonomikoak (ekonomia eskasia, aukera-kostua, jabetza-harremanak, ekoizpen-harremanak, banaketa eta kontsumo harremanak, sistema ekonomikoak....).
- Ekoizpen-jarduera (produkzio prozesua, kostuak, etekinak).
- Trukea eta merkatua. (eskari-kurba eta eskaintza-kurba, oreka eta prezioak finkatzeko moduak, lehia-merkatuak....).
- Makroekonomia. Barne Produktu Gordina (BPG), errenta nazionala eta haien osagaiak. Ezkutuko ekonomia. Inflazioa. Interes-tasak. Errentaren banaketa. Kontsumoa, aurrezkia, inbertsioa.
- Ekonomiaren finantza-alderdiak (banku dirua sortzeko prozesua, moneta politika, interes-tasak, Europako Banku Zentrala....).
- Ekonomiaren nazioarteko testuingurua.
- Desoreka ekonomikoak eta estatuaren zeregina ekonomian. (krisi ziklikoak, hazkundea, egonkortasuna, garapena...).



MUNDU GARAIIKIDAKO GATAZKAK ETA ERREALITATEAK PRENTSAREN ETA IKT-EN BIDEZ

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Gaur egun inguratzen gaituen errealitate soziala, politikoa eta ekonomikoa ulertzeko hurbilketa txiki bat egitea informazioaren tratamendua aztertuz, prentsa eta sare sozial ezberdinak erabiliz.

Aldi berean, prentsa orri bat diseinatuko dugu, egunkari baten modura, munduan gertatzen diren erronka nagusiak aztertuz.

Eduki esanguratsuenak

- **Gizarte postmodernoaren ezaugarriak**
Postmodernitatea eta bere kritika. Gai garaikideei buruzko pentsalariak: Zygmunt Bauman, Chomsky.
- **Egungo munduaren errealitate eta gatazka globalak**
Globalizazio ekonomikoa. Nazioarteko erakundeak eta aliatuak. Gerrak eta gatazkak. Migrazio mugimenduak. Kapitalismoa eta enplegua. Ingurumenaren gaia.
- **Errealitate eta gatazka unibertsalak gaur**
Kontsumo gizarte. Osasun mentala eta elikadura. Hezkuntza aro digitalean. Indarkeria eta diskriminazioa.
- **Informazioari, sare sozialei eta teknologia berriei lotutako egungo munduaren gatazkak**
Informazioaren sorrera eta aldaketa teknologikoak. Sare sozialak, telelana, zibersegurtasuna.



LABORATEGI TEKNIKAK

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Zientzien adarretan (Biologian, Fisikan, Geologian eta Kimikan) eskuratutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak laborategian garatzeko, laneko teknika eta metodologia sistematizatu eta zehatz batzuk aplikatzearen bidez.

Laborategiak hainbat irakasgaitako edukiak gune komun batean integratzea eta elkarrekin lotzea ahalbidetzen du, diziplinarteko ikerketak, praktikak eta proiektuak ginez. Gune horrek, aldi berean, bakarkako lanaren zein kolaborazio-lanaren garapena errazten du, eta autonomia ahalbidetzen du laborategiko zereginetan.

Eduki esanguratsuenak

- 1. Oinarrizko laborategia: Laborategiko abileziak eta trebetasunak garatzea, prozedura, teknika, material eta tresnarik egokienak doitasunez erabiliz, prozesu fisiko, kimiko, biologiko eta geologikoei lotutako galderei erantzuteko.
- 2. Saiakuntza fisiko-kimikoak: Laborategian egin daitezkeen lanen ikuspegi orokorra eta aniztasuna aitortzea, hainbat teknika eta esperientzia ezagutuz eta aplikatuz, trebetasun eta jarrera zientifikoak garatzeko.
- 3. Oinarrizko eragiketak eta prozesuak: Problema ebaztea eta ikerketa txikiak egitea, bakarka zein taldean, laborategiko lanaren berezko metodologia zientifikoak autonomiaz erabiliz, eguneroko bizitzako produktuak eta materialak aztertze, kontrolatzeko eta lortzeko.
- 4. Analisi kimikoa: Prozedurazko lanaren garrantzia ulertzea, metodo analitikoen bidez egindako kalitate-kontrola baloratz, eguneroko bizitzan erabiltzen eta kontsumitzen diren produktuen propietateak ezagutzea ahalbidetuko duten datuak eta emaitzak lortzeko.
- 5. Analisi instrumentala: Informazio zientifiko-teknologikoa eta lortutako datuak zehaztasunez interpretatzea, tratatzea eta komunikatzea, hainbat euskarri, material eta baliabide eta hiztegi zientifiko egokia erabiliz, lanaren emaitzak eta ondorioak aurkezteko.
- 6. Saiakuntza mikrobiologikoak, biokimikoak eta bioteknologikoak: Ezagutza fisikoak, kimikoak, geologikoak eta biologikoak modu integratuan, eta haiek teknologiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten erlazioak hainbat testuingurutan erabiltzea, eguneroko egoeretako problema aztertuz, egungo munduaren erronkekin bat datozen erabaki arduratsuak hartzeko.



ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA I (FRANTSESA)

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Klasearen dinamikari jarraituz, ikasle aurreratuak beraien ezagutzak finkatu eta hobetu ahalko dituzte, eta besteek frantses hizkuntzako oinarritzko egiturak ikasi ahalko dituzte.

FRANTSES TAILERRA DBH3 eta DBH4 urteetan egin duten ikasleei, DELF (frantses B1) maila lortzeko prestakuntza espezifikoak proposatuko zaie.

Eduki esanguratsuenak

Tailerretik datozenentzat:

- Elkarrekintzarako gaitasuna garatzea, ahoz zein idatziz, egoera errealistetan eta ikasleen adinari eta interesei egokitutako gaiei dagokienez.
- Lexikoa eta adierazpen baliagarriak eta egokiak ikastea, komunikazio-egoeretan moldatzeko.
- Egitura morfosintaktikoak pixkanaka eskuratzea, betiere komunikazio-egoerekin lotuta.
- Fonetika frantsesaren alderdi desberdinak aztertzea (azentuazioa, intonazioa, iraungipena...), baita sistema grafikoaren ezaugarri bereizgarriak ere.
- DELF azterketetarako prestatzea, hala badagokio, hau da, B1 edo B2 maila horretan, jarduera espezifikoaren bidez.
- Frantzia eta herrialde frankofonoak, bertako biztanleen bizimodua eta ohiturak ezagutzea.



KULTURA ZIENTIFIKOA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Gaur egungo gizarteko arazoak modu zientifikoan aztertuko dira: “fake news”, “dieta magikoak”, aurrerapen zientifikoak, ingeniaritza genetikoa, sasi zientziak, unibertsoaren jatorria eta bilakaera, erronka zientifikoak, etab.

Kurtoan zehar, testu, dokumental, film, proiektu praktikoa eta eztabaidekin gaurkotasuneko aurrerapen zientifiko eta teknologikoak landuko ditugu.

Eduki esanguratsuenak

- Zer jaten dugu?
- Zahartzea.
- Ingeniaritza genetikoa.
- Osasuna eta medikamentuak.
- Mundu jasagarriago bat: mundu hobe?
- Erronka zientifikoak eta etorkizunerako lehentasunak



PINTURA (MARRAZKETA ARTISTIKOA)

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Irakasgai erabat praktikoa izango da. Ondorengo gaitasunak landuko dituko dituzte:

- Sentikortasun artistikoaren garapena eta sormena sustatzea.
- Ikuste-memoria eta oroimena garatzea, norbere kanpotiko, nahiz, barrutiko irudien bitartez adierazpena ahalbidetzeko.
- Inguruko formen ulermen gaitasuna hobetzea, analisiaren bitartez eta bere egituraren ikerketa eta barne antolamenduari esker.
- Materialen gaineko beharrezko ezaguerak, prozedurak eta ezinbesteko teknikak lortzea, ikus-pentsamenduaren adierazpen zuzena bermatzeko.

Eduki esanguratsuenak

- Marrazketaren kontzeptua eta historia
- Adierazpen grafikoa eta bere oinarrizko baliabideak
- Espazioaren pertzepzioa eta antolamendua
- Teknologia eta tresna digitalak.
- Proiektu grafiko kolaboratiboak.



ALJEBRA ETA KALKULUA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Aljebra eta Kalkuluaren irakasgaia matematikako konpetentzia eta matematikako zentzu guztiak indartzeko irakasgaia izango da. Zientziako graduetara doazen ikasleei zuzendua da eta batxilergoko matematikan sakondu eta aratago joatea du helburu. Horretarako, hainbat baliabide digital integratuko ditugu, hala nola laguntzaile matematikoak, simulazioak, software dinamikoak eta abar, ikaste-egoerei aurre egiteko eta ekosistema aberastuetan problemak ebazteko. Horretaz gain, matematikako irakasgaiko Aljebra eta Kalkuluarekin lotuta dauden oinarritzko jakintzak sakonduko dira maila altuagoan landuz

Eduki esanguratsuenak

- Hizkuntza aljebraikoan problemak ebaztea: egoera errealak aljebraikoki modelizatzeko estrategiak.
- Matritze-idazkera. Gauss-en metodoa.
- Ekuazio linealen sistemak. Inekuazioak. Inekuazio-sistemak.
- Segidak (Progresioak).
- Funtzioak.
- Zenbaki konplexuak.
- Limiteak eta deribatuak. Deribatuen aplikazioak.
- Problemak ebazteko estrategia ezberdinak: kodifikazioa, bistaratze grafikoa, problemaren aldaketa, indukzio-printzipioa, absurdora murriztu etabar...
- Aljebra ikasteko modu berriak: Desmos, Geogebra eta Graspable Math tresna.



MUSIKA INFORMATIKA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Irakasgai honen helburua da ikasleak musika-konposizioa sortzeko, erreproduzitzeko, erregistratzeko eta entzuteko prozesuan sartzea, ordenagailuaren eta hizkuntza informatikoaren erabilera kritiko, seguru eta arduratsuaren bidez.

Ikasleen beharretara egokitutako askotariko baliabideak erabiltzen dituzten eta curriculumeko hainbat jakintzagai elkar erlazionatzen dituzten proiektu praktikoak garatuko dira.

Eduki esanguratsuenak

A. SOINUA. MUSIKA HIZKUNTZA

Soinuaren oinarri fisikoak eta audioaren eboluzioa gaur egunera arte. Uhin-formak, maiztasuna, anplitudea. Soinu sinpleak eta konplexuak. - Soinu-mailak. Osasunerako eta ingurumen-segurtasunerako garrantzia. - Soinu elektronikoak eta elektroakustikoak. Musika-hizkuntzaren oinarritzko kontzeptuak. Aplikazio praktikoa informatika musikaleko programetan.

B. MUSIKAREN GRABAZIOA, EDIZIOA ETA ERREPRODUKZIOA

Soinua grabatzeari, editatzeari eta erreproduzitzeari buruzko oinarritzko nozioak. - Soinua grabatzeko formatuak. - Erreproduzigailu motak, euskarriak eta musika-artxiboak. Biltegiatzea, fitxategiak bihurtzea eta euskarri batetik besterako aldaketa. - Soinuak editatzeko eta musika-sorkuntzan aplikatzeko programak. - Sintesi-soinuak sortzeko programak. - Musika-produkzioaren hastapenak: grabazioa hainbat pistatan, ekualizazioa, iragazkien eta efektuen aplikazioa, nahasketa. - Erabilera-lizentziak eta egile-eskubideak.

C. MUSIKA SORKUNTZA

Musika-eduki digitalen sorkuntza genero-estereotiporik gabe. - Teknika, baliabide eta korrante estetiko nagusien oinarritzko ezagutza. - Hainbat arte-hizkuntza estimatzeko jarrera. - Ekintzailatza, iraunkortasuna, malgutasuna eta sormena diziplina anitzeko proposamenak egitean. - Ingurune digitalarekin lotutako problemak ebazteko jakin-mina eta ekimena. - Kultura-aniztasunaren eta haren adierazpen- eta komunikazio-moduen balorazioa.



GIZARTE ANTROPOLOGIA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Jakintzagai honen helburu estrategikoen artean kultura-aniztasunari buruzko ezagutzak eraikitzea dago, migrazioek, mestizajeak, lurraldeen okupazioek, merkataritza-trukeek eta abarrek eragindako ezaugarri kulturalak edo eredu soziologikoen transformazioan sakonduz, eta, horrekin batera, pertsonen, herrien edo herrien identitateen eraikuntzan nola eragiten duten azpimarratzea. Horrek ikasleak bultzatu behar ditu Euskal Herriko zein beraien jatorrizko marko kultureko (dagoen kasuetan) interesa garatzera, beste kultura batzuekin alderatzera, beren ondare naturala, kulturala, soziala eta historikoa balioesteko.

Arestian azaldutakotik ondorioztatzen da, halaber, materia honek sormena eta berrikuntza garatzeko esperientziak ekar ditzakeela; izan ere, jorratutako arazoei buruzko irtenbideak bilatzea eskatzen du, hala nola, gizarte- eta landa-ikerketako lanak, txostenak egitea, elkarrizketa dialogikoetan edo dinamiketan parte hartzea edo garapen soziokomunitarioko proiektuak sortzea. Ikasleak landa-lana oinarritzat izango duen ikerketa etnografikoa garatu beharko du, bere interesetatik abiatuta, ondare material eta inmaterialaren inguruko ezagutza elikatuz konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzaren logikatik.

Eduki esanguratsuenak

- Antropologiari sarrera eta ikerketa metodoak.
- Kultura eta gizartea.
- Gizartea, kultura eta nortasuna.
- Sinesmenak eta erlijio sistemak.
- Sistema sozio-ekonomikoak eta etxeko bizimoduaren antolamendua.
- Hizkuntzaren antropologia eta sistema sinbolikoak.
- Inguruari begirada antropologiatik.



XX. MENDEKO EUSKAL LITERATURA ETA LITERATURA ESPAINIARRA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Jakintzagai honen helburua XX eta XXI. mendeko testu literarioak plazerez irakurtzea eta gozatzea da; horregatik ikasleen bizipen eta interesetatik abiatutako saioak prestatuko dira, guztion artean irakurketa esperientzia partekatzeko.

Testu horien izaeraz baliatuta, konstelazio literarioak sortuko ditugu, hau da, autore, obra edo mugimendu anitzetako literatur-adierazpenak elkarren artean josiko ditugu; baita gainontzeko adierazpen artistiko kulturekin (zinema, musika, pintura, eskultura...) elkarrizketan jarri ere.

Hartara, klaseak dinamikoak, irekiak eta metodologia aktiboetan oinarritutakoak izango dira, hau da, literatura tertulien bidez testuak aletu ondoren, proiektua sortu beharko dute taldean.

Funtsean, ikasgai honen helburua literatura bete-betean bizitzea da, gela gozatzeko txoko bihurtuz, irakurketa eta idazketa sortzailea sustatuz eta norbera eta inguratzen gaituen errealitatea hobeto ulertzeko literatura baliatuz.

Eduki esanguratsuenak



IKUS-ENTZUNEZKO KULTURA (EUSKARAZ)

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Helburua: Ikus-entzunezko kulturak gaur egungo gizartean duen berebiziko garrantziaz ohartzea eta jabetzea, eta kultura hori sortzea ekarri duten testuinguruak -soziala, zientifikoa, artistikoa, ekonomikoa, informazioaren nahiz komunikazioaren esparrukoa- aintzat hartzea, horrek guztiak mundua irudikatzeko ereduen osaeran zer-nolako garrantzia izan duen ulertzeko.

Metodologia: Irakasleak azalpenak emango ditu eta ikasleak apunteak hartuko ditu eta azterketa apunteetan dagoena oinarri hartuz egin beharko dute, koadernoan aurrean dutela erantzun. Horretaz gain, astean behin ordenagailuetan lan egingo dute eta astean beste behin film edo dokumentala ikusiko dute.

Eduki esanguratsuenak

1. EBALUAZIOA

- Hedabideen eta ikus entzunezko hizkuntzaren eboluzioa (irudia zeinu).
- Ikus entzunezko komunikabideen garrantzia gure gizartean. Irudien erakarpen indarra.
- Pertzepzio konstantziak.
- Gestalten teoria.
- Telebistaren hizkuntza eta bere garrantzia gure gizartean.
- Telebistaren boterea.

2.EBALUAZIOA

- Informazioa “ikuskizun” gisa.
- Aukera libreko komunikabideak.
- Askatasuna eta adierazpena.
- Publizitatearen jatorria eta eboluzioa.
- Propaganda eta publizitatearen xarma.
- Publizitatea eta teknologia berriak.
- Publizitatearen “giza” alderdia eta ekimenak.

3. EBALUAZIOA

- Informazioaren eta ezagutzaren gizartea.
- Adimen artifiziala.
- Sare sozialak eta internet.
- “Jauzi digitala”.



IKUS-ENTZUNEZKO HISTORIA (INGELESEZ)

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Ikus-entzunezko gaia modu praktikoan eta kooperatiboan landuko dugu: posterrak, bloga, aurkezpenak, argazkiak, bideoak, irrati programak...

Ikasleen parte-hartze aktiboa bultzatuko da. Haiek landuko dituzte gaiak eta klase-kidei azaldu IKT berriak erabiliz, eta hau dena ingelesa praktikatuz.

Eduki esanguratsuenak

- 1. Ebal: Komunikabideak eta Argazkilaritzaren printzipioak eta historia.
- 2. Ebal: Publizitate eta Zinemaren hizkuntzak eta historia.
- 3. Ebal: Musika eta Sare Sozialak oinarriak eta garapena.



AHOZKO KOMUNIKAZIOA ATZERRIKO HIZKUNTZAN (INGELESEZ)

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Batxilergoko helburuetako bat “Atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan jarioetasunez eta zuzentasunez hitz egitea” izanik, ORAL COMMUNICATION ikasgaia beharrezkoa da.

Egungo gizarte anitzean hizkuntza desberdinetako komunikazioa funtsezkoa da. Ingelesez komunikatzeko gai izateak ikaslearen hezkuntzan eta prestakuntzan laguntzen du, nazioartekotzea eta mugikortasuna bultzatzeaz gain.

Ingelesa arloak duen curriculum zabala dela eta, ez dugu beti denbora nahikoa izaten ahozko komunikazioari behar duen arreta emateko. Ikuspegi instrumental batetik, espezifikoki ingelesez modu eraginkorrean **ahoz komunikatzeko** gaitasuna landuko da arlo honetan.

Irakasgai honek ikasleen Irteera Profila osatu behar duten funtsezko konpetentziak eskuratzen laguntzen du.

Lehenik eta behin, Konpetentzia Eleaniztuna (KE) sakonago garatzen laguntzen du KE1, KE2 eta KE3 deskriptore operatiboek definitzen dutenaren arabera.

Ingelesaren ezagutza aurrera egin ahala, Hizkuntza-Komunikaziorako Konpetentzian (HKKn) atzerriko hizkuntza familiako hizkuntza edo hizkuntzei eta hizkuntza ofizialen erabilerara gerturatuko. HKK1, HKK2, HKK3 eta HKK5 deskriptore operatiboak garatuko dira.

Atzerriko hizkuntza atzerriko kulturei lotuta dago eta, ondorioz, Kontzientzia eta Adierazpide Kulturalerako Konpetentzia (KAKK) garatzea arlo honen oinarrian kokatzen da eta KAKK1, KAKK2 eta KAKK3 deskriptoreak landuko dira.

Gaur egun gela barruko lanean erabiltzen ditugun baliabide digitalak kontutan izanda, Konpetentzia Digitala (KD) garatzen ere laguntzen du arlo honek deskriptore hauetan: KD1, KD2 eta KD3.

Edozein arlotan bezala, Konpetentzia Pertsonala, Soziala eta Ikasten Ikastekoa (KPSII) garatuko dira KPSII1, KPSII 2, KPSII3 eta KPSII 5 deskriptore operatiboek azaltzen duten moduan.

Azkenik, Herritartasun Konpetentzia (HK) eta Ekintzaile-Konpetentzia (EK) HK3 eta EK1 deskribapenen arabera era landuko dira.

Eduki esanguratsuenak



AHOZKO KOMUNIKAZIOA ATZERRIKO HIZKUNTZAN (FRANTSESEZ)

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Frantzia eta herrialde frankofonoak, bertako biztanleen bizimodua eta ohiturak ezagutzea. Ikasle berrientzat oinarrizko maila.

Eduki esanguratsuenak

- Gauzak eta pertsonak identifikatu. Nor da? Agurtu, aurkeztu. Bere gustuak adierazi.
- Norbait aurkeztu eta deskribatu. Ikasgelan komunikatu. Data esan. Norbait gonbidatu. Onartu, ukatu gonbidapen bat.
- Bere familia aurkeztu. Norbaiti buruz galdetu. Objektu bat deskribatzea. Bere buruaz hitz egin.
- Eskolaz kanpoko aktibitateak. Aginduak, jarraibideak, aholkuak eman. Espazioan kokatu. Bere hitzak adieraztea sentsazioak.
- Bide bat, norabide bat seinlatu. Bide bat eskatu. Garraiobideei buruz hitz egin. Galdetu eta ordua eman. Urtaroei eta meteoari buruz hitz egin. Hitz egin nazionalitateez, lanbideez.



MUSIKA LENGOAIA ETA PRAKTIKA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Gai honetan musika ulertu, baloratu eta gozatzeko ezinbestekoak diren bi atal landuko dira.

Alde batetik, musika lengoiaren erabileran trebatzea landuko da. Musika partiturak interpretatzeko oso lagungarria da lengoaia musikala ahalik eta modu zabalenean ezagutu eta deskodifikatzea; honek musikaren praktikarako ate berriak irekitzen bait ditu. Musika lengoiaren lanketa modu praktikoan egingo da; musika tresnekin eta abestuz, proposatzen diren partiturak erabiliz.

Bestetik, obra musikalen analisia landuko da oinarritzko forma musikaletatik abiatuz. Obra hauen analisia entzunaldien eta partituren bidez egingo da bereziki. Obra musikalen analisia oso sakona izatera iritsi daitekeen arren ikasleek duten aurre ezagutzari moldatuko gatzaito.

“Musika lengoaia eta analisia” gaian izena emateko ez dugu beharrezko ikusten musikako aurrezagutza sakonak edukitzerik, baina bai gaiarekiko jarrera aktiboa eta parte hartzeko gogoia.

Eduki esanguratsuenak



ZUZENBIDEA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Zuzenbidea ikasgaiak gizartean bizikidetza arautzen duten legeen eta arauen oinarriak ulertzea du helburu, ikasleek herritar arduratsu eta kritiko gisa jarduteko gaitasuna garatzeko.

Ikasturtean zehar, zuzenbidearen funtsezko kontzeptuak, bere adarrak (zibila, penala, administratiboa, lanekoa, merkataritzakoa, zerga-zuzenbidea...), enpresa eta lan harremanen araudia, Gizarte Segurantzaren zerga-sistema eta antolaketa politiko-juridikoa (Konstituzioa eta Autonomia Estatutuak) lantzen dira.

Gainera, kasu praktikoen bidez, eguneroko egoeretan legeak nola aplikatzen diren aztertzen da, komunikazio- eta analisi-trebetasunak indartuz eta demokrazia, justizia soziala eta elkartasuna bezalako balioak sustatuz.

Eduki esanguratsuenak

A. Zuzenbidearen funtsezko oinarriak

- Antolamendu juridikoaren iturriak.
- Zuzenbidearen printzipio nagusiak (eskubide naturala eta positiboa).
- Arauen hierarkia eta zuzenbidearen adarrak.
- Zuzenbide zibila (ezkontza, izatezko bikoteak, oinordetzak) , penala eta administratiboaren ezaugarriak eta funtzioak.
- Legedia eta justiziaren arteko harremana.

B. Zuzenbidea, enpresa eta lana

Merkataritza-zuzenbidea

- Merkataritza-zuzenbidearen oinarritzko kontzeptuak.
- Enpresen erantzukizun juridikoa.
- Hartzekodunen konkurtsoa (kiebra eta ordainketa-etendura).
- Merkatuaren erregulazioa.
- Balore-merkatuen eta finantza-bitartekarien araudia.
- Espekulazioaren aurreko ikuspegi kritikoa.

Lan-zuzenbidea

- Lan-zuzenbidearen kontzeptua eta Langileen Estatutua.
- Lan-kontratua: kontzeptua eta motak.
- Ordezkaritza-eskubidea eta negoziazio kolektiboa. Gatazka indibidual eta kolektiboak.
- Soldata-arrakala eta diskriminazioa.



- Gizarte Segurantzaren kontzeptua eta prestazioak.

Zerga-zuzenbidea

- Zerga-sistemaren egitura (Ogasun Publikoa eta foru-sistema).
- Zuzeneko eta zeharkako zergak.
- Zerga nagusiak (PFEZ, BEZ, sozietateak...).
- Zerga-iruzurraren aurkako kontzientzia.

C. Zuzenbidea eta gizartearen

- Estatua eta Espainiako antolaketa politikoa.
- 1978ko Konstituzioa: artikuluen nagusiak eta eskubideen babesa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren oinarriak.
- Giza eskubideak eta horiek babesten dituzten erakundeak.
- 2030 Agenda eta ingurumen-araudia.

D. Kasuen garapeneraren azalpen publikoa

- Negoziazio eta komunikazio teknikak.
- Aurkezpen eraginkorra egiteko tresnak eta gaitasunak.